

• ASTERO GAIA •

Galleterak. Oroimen bizia

Emakume

langileen alde

Galleterak. Oroimen bizia emakume langileen aldeko kultur proiektua da, hainbat emakumek garatua: hiru artistek, soziologo batek eta arkitekto batek. Emakume langileen antzinako egoera arakatu dute, egungoa ezagutzeko. Horretarako, Bilboko itsasadarreko ehun urtetik gorako Galletas Artiach enpresako langileengan jarri dute arreta, langile haiek industria garapenaren –zehazki Deustuko erriberako garapenaren– ikur bilakatu baitziren.

DANIEL UDALAITZ

Argazkiak: galleteras.net

PROIEKTUA gizarte industrialeko galletagileetatik abiatzen da, gaur egungo galletagileak bilatzeko. Helburua lortzeko, bitarteko teknologiko modernoak erabili dituzte: Internet, bideoa eta liburu bat; eta baita Internetik ez dutenei zuzendutako erakusketa ibiltaria ere.

Zehazki, joan den apirilean oroitzapen eta festa giroko ekitaldi xume bat egin zen Deustuko (Bilbo) erriberako Zorrotzaurreko penintsulan, Artiach galleta fabrika zaharrean. Fabrikaren ehungarren urteurrena ospatu zen eta batez ere, emakume langileak eta XX. mendeko Bilboren garapen ekonomiko eta sozialean izan zuten garrantzia gogorarazi zituzten. Alabaina, ekitaldi hartako gauzarik garrantzitsuena kultur proiektu baten aurkezpena izan zen, Artiacheko XX. mendeko galletagile haiek gure oroimenean gelditzea baino askoz harago doan proiektua: *Galleterak. Oroimen bizia*. Pripublikarrak izeneko taldeak sortu du ekimena, Bilboko Udalarren Hirigintza eta Ingurumen Sailak eta Emakumea eta Garapen Lankidetza Sailak eskatuta, eta taldekide gehienak arlo oso desberdinetako emakumeak dira.

Kultur proiektua

Emakumezkoek lan munduan bidezko tratua izatea lortzeko, emakume askok egindako

Emakumeek lan munduan bidezko
tratua izatea lortzeko, emakume
askok egindako lana, aldarrikapenak
eta borroka ahanzturatik atera eta
berreskuratzea da kultur proiektu
honen helburua

lana, aldarrikapenak eta borroka ahanzturatik atera eta berreskuratzea da kultur proiektu honen helburua, emakume haiek, nahi izan gabe, une historiko baten –gizarte industriaren– adibide adierazgarri bihurtu baitziren. Proiektua, gainera, gaur egungo emakumearen lanaren inguruan eztabaidatzeko aitzakia ere bada. Sustatzaileen esanetan, intrahistoria pertsonalen bidez Bilboko hiriaren historia eraiki zuten emakume haiek gogoratu eta emakume haiek aurkitzeko proiektua da, industria garapenaren eta zehatz esanda Deustuko erriberaren garapenaren ikur bilakatu baitira. Halaber, emakumeak nagusi izan ziren zirga, bakailao lantegi, jute fabrika, kalamu txirikordatz, bela joste eta ontzigintzaren jarduerarekin zerikusia duten bestelako industria osagarrietan. Arduradunek diotenez, proiektu honek aintzat hartu nahi du emakume horiek guztiek eginiko lana, galletagileak ikurtzat hartuta.

Asmo handiko proiektua da hau, gizarte osoari zabalik dago, eta funtsean hiru aplikazio oso zehatz ditu: liburu bat, web orrialdea eta bideo dokumental bat.

Liburua, Internet eta erakusketa ibiltaria

Dagoeneko kalean da joan den apirilean aurkeztutako *Las Galleteras de Deustua. Mujer y*



Trabajo en el Bilbao Industrial liburua. Marta Zabalak eta Maite Ibáñezek idatzi dute eta, bertan, irudi eta testigantzen bidez bildu dute emakume haien industria jarduera: lanbidea, makinekin zeukaten harremana, lanaldi neka-garriak, soldatak, eta ugazaba eta arduradunekiko harremana. Galletagileen gizarte inguru-neaz ere ez dira ahaztu, eta besteak beste etxeen, aisialdirako lekuen eta gizarte harremanen berri ere eman dute.

Pripublikarrak taldeak egindako bideo dokumentala ere aurki dezakegu www.pripublikarrak.net/blog web orrialdean. 18 minutukoa da, eta Aranzazu Calleja konpositore eta biolin-jotzaileak jarri dio musika. Bideoak, lehengo eta gaur egungo galletagileei egindako elkarrizketen bidez, emakumeen lanari eta lan kateari buruzko testigantzak biltzen ditu. Eta horri guztiari laguntzeko, galleta enpresak izandako bilakaeraren unerik garrantzitsuenak erakusten dituzten antzinako argazkiak azaltzen dira.

Interneten ere badago proiektu hau euskaraz eta gaztelaniaz oso-osorik eta modu parte-hartzailean azaltzen duen web

Goiko eta hurrengo orrialdeko irudietan, Zorrotzaurreko (Bilbo) Artiach fabrika zaharrean, lanean.

orrialdea (www.galleteras.net). Industria garaiko langileak –galletagileak ikurtzat hartuta– eta industria ondorengo garaiko langileak biltzen dituen artxibategi bizia dela esan daiteke. Orrialde bizia da, parte-hartzea eta elkar abarasteko bidea ematen duena.

Oraindik ere Internetarako sarbiderik ez duen jende asko dago. Baina hori ere kontuan izan dute proiektuaren arduradunek, eta jende guztiak proiektua ezagutu dezan, Bilboko kulturetatek barrena ibiliko den erakusketa ibiltaria jartzeko asmoa dute. Bertan erakutsiko dituzte dokumentala, liburua eta zenbait argazki.

Iragana ezagutuz gaur eguna aktibatu

Proiektu interesgarri honen arduradunen asmoa ez da emakume langileen –kasu honetan Deustuko galletagileen, Donostiako zigarrogileen, Andoaingo (Gipuzkoa) kotoigileen edo Bilboko itsasadarreko zamaketari eta zirgarien– iragana erakusten duen argazki bilduma soilak egitea. Iragana ezagutzea dute helburu, gaur eguna aktibatzeke. Hala, web orrialdean hainbat formula eskaintzen dituzte,

Zein da emakumeen gaur egungo lan egoera? Industria garaia eta zerbitzuen gizartea alderatuta, zertan aldatu da emakumearen lan egoera?



eta Internetek ematen dituen aukerez baliatzen dira gaiaren inguruko etengabeko eztabaida pizteko.

Esate baterako, galde-sorta bat jarri dute, Interneteko sarean industria eta industria ondorengo garaiko emakumeci eta lanari buruzko eztabaida irekia ahalbidetzeko. Hona hemen galderak: “Nola uztartzen dira

etxeko lanak eta lanaldia? Nolakoak lirateke gaur egungo galletagileak? Behin-behinekotasuna lan alorrean baino ez da ageri egun edo bizi eredura zabaltzen da? Bilboko hiriak ze garrantzi ematen dio emakumearen lanari? Emakume langileen bizilekua lan lekua ere bada? Lantegia lan eta protesta gunea izan da orain arte, baina egungo behin-behinekotasu-



Artiach galleta fabrika zaharra.

Artiach familiatik multinazionalak

Ehun urtetik gora dituen Galletas Artiach enpresa, Artiach familia bilbotarrak Deustuko erriberan sortu eta mantentzetik 1983an Orozkon (Bizkaia) kokatu eta orain arte hiru multinazionalen eskuetatik pasatzera aldatu da. Aurrena Nabisco multinazionalak hartu zuen, gero United Biscuits-ek eta gaur egun Kraft-ek kontrolatzen du 150 langile inguru dituen negozio hau.

Artiachtarrek, irin, ale eta galleten negozioan jardun zen merkatari familiarak, sortu zuen Artiach 1907an, Bilbon. Urte hartan, beste pauso bat eman eta galletak egiteko lantegi propioa sortzea erabaki zuten. Aurrena lantegi txiki bat jarri zuten, eta urte batzuk geroago fabrika handiago bat eraiki zuten Bilboko Deustun dagoen Zorrotzaurre auzoan. 1923. urterako 63 galletagile zebiltzan fabrika hartan lanean. Hasiera batean, enpresa honetan lan egiten zuten langile ia guztiak,

zuzendaritza karguetakoak izan ezik, emakumezkoak ziren.

Bilbon 1983an izandako azken uholde famatu haien ondoren, enpresa Orozkora eraman zuten, bertan eraikitako instalazio modernoetara. Enpresaren produktu ezagunena Chiquilín galleta ezaguna zen eta laurogeiko hamarkada arte “Bilbao” hitza izaten zuen idatzita. Enpresa Orozkon jarri eta denbora gutxira, galleta enpresa euskaldun hau Nabisco multinazionalaren eskuetara pasatu zen. Gero, beste multinazional batek hartu zuen jabetzan, United Biscuits-ek. Eta, azkenik, United Biscuitsen Europa hegoaldeko negozio osoa, gauzak gaizki baitzihoazkion, Kraft multinazionalak hartu zuen. Ondorioz, gaur egun Kraft da Artiachen jabea. Multinazional honek dira beste marka jangarri hauek ere: El Caserío, Saimaza, Milka, Philadelphia, Suchard eta Toblerone.

na kontuan izanik, nola konpondu elkargunerako lekuen falta hori? Zeintzuk dira egungo emakumeen lan eremu nagusiak? Zein aukera dago egun elkarte zein sindikatu bidez kexak azaltzeko? Zein da emakumearen lan egoera gaur egun?"

Bestalde, bi garaien arteko desberdintasunak ikusteko, genero gaietan lan egiten duten edo gai honetan esperimentzia duten zenbait emakume edo taldek bi galderari emandako erantzunak azaltzen dira kultur proiektu honen web orrialdean. Hauek dira galderak: Zein da emakumeen gaur egungo lan egoera? Eta, industria garaia eta zerbitzuen gizartea alderatuta, zertan aldatu da emakumearen lan egoera? Galletagileen web orrialdean ikus daitekeenez, hauek guztiek erantzun diete bi galdera horiei: Remedios Zafra idazle eta ikerlariak; Maite Larrauri filosofo eta idazleak; Marta Perez sare asaldatzailerak, kultur produktore eta teknika berrietan adituak; eta Medeak-ek, Plazandreok taldearekin lankidetzan aritzen den emakume gazte osatutako ekintzaile talde feministak.

Zamaketari, zirgalari, zigarrögile eta kotoigileak

Ekimena ez da Deustuko galletagileetara mugatu, eta bere garaian lan baldintzak hobetzearen alde borrokan aritu ziren beste emakume batzuen kasuak ere biltzen ditu. Galletagileen web orrialdeko esteketan klikatuz, Bilboko itsasadarreko zamaketari eta zirgarrien edo Gipuzkoako kotoigile eta zigarrögileen errealitatea ezagutu daiteke. Era berean, lan eta gizarte arloko errealitate haren zenbait alderdi biltzen dituzten agiri eta bideoak ere ikus daitezke.

Zamaketariak eta zirgalariak funtsezkoak ziren Bilboko portuko lan jardunean. Emakumezkoek egiten zituz-

XI. JAUTARKOL OLERKI SARIA



I. SARIA

IZENA: OIHANE UNZALU ALDECOA

IZENGOITIA: Bide laburrik ez da.

Beste batzu luzeagoak dira

(Sarrionaindia)

LANA: "MUNDU BERRI BATEN ATARIAN"

NONGOA: Durango

MUNDU BERRI BATEN ATARIAN

"Bide laburrik ez da. Beste batzu luzeagoak dira."
SARRIONAINDIA

Txikitasunean
ehortziko nuke izatea,
txupeteetan, adur-zapietan...
Lau hankatan joango nintzateke
fikzioan errealitatea bilatzera.
Zure besoan korapilotik
begiratuko nuke mundua
egunerok.

Denborari desafio
egin diezaiozun nahi dut,
ama. Elkarrekin,
Arrazoiari
ihes egiteko.

Fikzioaren mundua
bilatuko nuke zurekin,
arrazoi-gabezia barneratzeko.

Txikitasunean eta ezjakintasunean
izotzuko nituzke
erlojuaren orratzak,
zorionaren zilbor-hestes
eternitatera luzatzeko.

Zoriontasuna ura bezala da,
gardena.
Arrazoiak arrakalarik txikiena
zabaltu orduko,
ihes egiten duelako.

Arrazoiak
lapurtu dit itsasoa,
ama. Gardentasuna,
Denborak garaitu
egin gaituelako.
Eta gabezia amiltzea baino
ez zait gelditzen jada,
lausotasunean.

Bakardadeak laztandu nau,
historiak egindu bezala,
nire zuhaitz partikularretik
jauzi egin dudanean,
lurreratu naizenean.

Eta orain,
mundu niretzat jaioberri
baten atarian,
bi hanken gainean
neure kabuz
eusten naiz dagoeneko.
Baina ni
egon naiz, ama.

Galleterak. Oroimen bizia

Behin-behinekotasuna eta diskriminazioa, atzo eta gaur

Garai hartako galletagileen eta gaur egun multinazional batek kontrolatzen dituen galletagileen ezaugarriak lan ezegonkortasuna, soldata diskriminazioa eta horren guztia kontrako errebindikazioa dira. Artiacheko langileak oso borrokalaria izan dira, batik bat laurogeiko hamarkadan. Greba politikoak eta lan grebak egin zituzten, eta euskara, amnistia eta abortuaren aldeko mugimendu eta mobilizazioekin bat egin eta horietan guztietan parte hartzen jakin zuten. Lehen Deustun zeuden eta orain Orozkon dauden emakume langileek aitortzen dute oraindik ere gizonen eta emakumeen soldaten artean dagoen aldearen aurka borrokatzen jarraitzen dutela. Era berean, aldi baterakotasunak ere badirau, eta horren aurka ere borrokan jarraitzen dute.

Lehendabizi Deustun eta orain Orozkon 31 urtez lanean diharduen Mertxe Martin langileak erriberan izan zuen lan egoerari eta gaur egun Orozkon duenari buruzko argibideak eman dizkigu: "Lanean hasi nintzenean nagusien irizpidea zen gizonetakoek, familia buruak zirenez, diru gehiago irabazi behar zutela eta lanpostu jakin

batzuk bete behar zituztela. Hortaz, guk azken maila betetzen genuen. Oso emakume ausart batzuk, ordea, poliki-poliki lanpostu horiek lortzen hasi ziren eta aldeak txikituz joatea lortu dugu, nahiz eta oraindik ere aldi baterakotasunak kezkatzen gaituen. Gaur egun oraindik 17 urtez aldi baterako kontratuarekin lanean ari den jendea dago Orozkon, eta ez da bidezkoa jendea telefono mugikorrari itsatsirik bizi behar izatea, lanean berriz asteko deia zain".

Galletas Artiachen 1975ean lanean hasi zen Arantza Murguzurrek gogoan du antolatu zituzten lehenbiziko borroketako bat emakumeek ezkondu ondoren lana ez uztearena izan zela, lanean jarraitzea oso zaila izaten baitzen umeak iristen zirenean. Eta gaineratzen du: "Helburu nagusia euskara irakastea zuen kultur funts bat atera genion enpresari, atsedean hartzeko astia lortu genuen eta soldaten arteko aldeak murriztu genituen. Gainera, gogoratu beharra dago azken hitzarmenean, 2004koan, negozio mahaiaren gai nagusia enpresan lanean 30 urtetik gora zeramatzen 66 emakumeren lan baldintzak parekatzea izan zela".

ten, gizonetakoek edo lor-abereek egin behar izanez gero etxe kontsignatarioentzat garestiagoak izango lirakeelako. Hiru zamaketari mota zeuden 1890. urtean: merkataritza transakzioetako dirua eramateaz arduratzen zirenak, bakailaoa kaitik biltegietara eramaten zutenak eta hondarra eta minerala kargatzen zutenak. Azken mota hori zen gremioaren barruan gutxietsiena zegoena, eta "venaque-ras" deitzen zieten horretan jardun ziren langileei. Kaiko gabarratik minerala eta hondarra kargatzen zuten. Hala ere, zirgarien lana okerragoa zen. Lau bat emakumeko taldeak egin eta ilaran jarrita gabarrak arrastaka eramaten zituzten gorputzean tiranteekin lotuta zeramatzen unamen bidez. Ontzi handiek

Olabeagatik pasa ezin zutenez, salgaiak gabarretan garraiatu behar izaten ziren gertuen zeuden Areatzako kaletaraino. 1905. urtean oraindik ere egiten ziren horrelako lanak Bilboko portuan.

Zigarrogileak, ia-ia haurtzarotik Donostia-ko Tabakaleran lan egiten zuten emakumeak ziren –gaur egun kultur gune bihurtu dute fabrika–. Tabakaleran zazpiehun emakume aritu ziren lanean, eta bideo batean ikus daiteke nolako baldintzetan lan egiten zuten. Web orrialde berean Andoaingo kotoigileei (1857-1965) buruzko erreferentziak ere aurki daitezke. Hain zuzen ere, Andoaingo kotoi fabrika lanean aritutako 330 langileetatik 55i omenaldia egin diete aurtan Donostian. ■

Artiach enpresak ateratako iragarkiak.



«Xedea emakume langileen eskubideak defendatzea da»

Galleterak. Oroimen bizia egitasmoaren arduradunak Pripublikarrak kolektiboko partaideak dira. Aiora Kintana Goiriena, Olaia Miranda Berasategi, Saioa Olmo Alonso, Maria Mur Dean eta Oihane Ruiz Menendez kideek osatzen dute taldea: hiru artista, soziologo bat eta arkitekto bat. Eurekin izan ginen, egitasmoaren inguruan hitz egiten.

Ekimenaren atzean zaudetenak zeintzuk zarete zehazki?

Pripublikarrakekoak. Pripublikarrak esanahi propioa duen hitz-jokoa da: pribatua eta publikoaren artean, pripublikarrok ekintza, errepresentazio eta ahalmen eremu berri bat sortzen dugu, esfera publiko eta pribatuaren banaketa hertsia eta tradizional baten aurrean hierarkiak hautsiz. 2005. urteaz geroztik, arte, genero eta komunikazioaren inguruan proiektuak garatzen gabiltzan talde multidiziplinarra gara, hiru artistek, soziologo batek eta arkitekto batek osatua. Orain arte *Optikak*, *Koktelazioak*, *Shif Control* eta *Galleterak Oroimen bizia* egitasmoak garatu ditugu.

Zergatik erabaki zenuten proiektua egitea?

Bilboko Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Emakume sailen enkarguz garatu dugu egitasmoa. 2006ko uda partean gurekin jarri ziren harremanetan, *Las Galleteras de Duesto. Mujer y trabajo en el Bilbao Industrial* liburuaren argitalpena zela medio aurkezpen berezia egin nahi zutela esanez. Guk jadanik bagenuen harremana Emakume Sailarekin eta komunikazio eta parte-hartze estrategietan oinarrituriko hainbat proposamen egin genizkien. Azkenean, *Galleterak. Oroimen bizia* atal ugari izan ditu: aipatu liburua- ren aurkezpena Bilboko Zorrotzaurreko Artiach fabrian, galletagileen testigantzak biltzen dituen dokumentala, gaur egungo lan baldintzak eta galletagileen argazki zein hitzak biltzen dituen www.galleteras.net web gunea, lana eta emakumearen inguruko dokumentala, proiektuaren komunikazio kanpaina, eta abar.

Zer nolako harrera izan du egitasmoak?

Oso ona. Parte-hartze handia egon da maila guz-



Pripublikarrak taldeko kideak.

tietan: galletagileek argazki eta informazio asko eman digute eta baita Artiach fabrikako lehengo jabeek zein Bilboko hiritarrek ere. Gainera, komunikabideetan eta gizartean oro har proiektuak interes handia sortu du. Eta aurkezpen egunean 400 pertsona baino gehiago etorri ziren. Halaber, www.galleteras.net web guneak bizirik jarraitzen du argazkiak eta komentarioak biltzen. Inoiz bukatuko ez den egitasmo bihurtu du Internetek. Eta ez da bakarrik galletagileen memoria berreskuratzea, emakume langile guztien eskubideak defendatzeko modua ere bada. Guretzat egitasmoa gaurkotzea oso garrantzitsua da eta emakumearen eta lanaren inguruan ikerketa sakona egitea. Horregatik animatzen dugu jendea web gunean dagoen galdeketa erantzutera.

Egitasmo guztietan ematen diogu garrantzia handia parte-hartzeari eta kasu honetan berdin izan da. Egun, uste duguna baino jende gehiagok du aukera Interneten ibiltzeko, eta informazioa zabaltzeko eta demokratizatzeke modu bat da. Oso bisitatua izan da web gunea eta argazki zein iritzi mordoa utzi dizkigute. Bertan dago proiektuari buruzko informazio guztia eta denboran mantendu dezakegu.

Beste proiektu batzuetan pentsatu duzue?

Idensitat arte programan parte hartuko dugu Manresan eta Rolling Rolak generoaren inguruan izango den on line argazki lehiaketa garatzen ari gara nontzeberri.net web gunearekin batera. ■

INGO AZKONI

2007ko uztailaren 22a

ARGIA

11